

Euskara indartuz

1. Euskara hitza entzun orduko
euskaldun belarriak zutik,
ez al dago hainbestetatik
Euskararentzat leku onik.
“Euskara jalgi hadi plazara”
zion Etxeparek oparo.
baina heldu ordezt gorago
gero ta okerrago dago.

2. Begiratuaz datu artera,
Donostian erabilera
doala pittinka atzera
tamalez ohartuko gera.
Ez beti egon ez gaitezela
hala ere negar egiten,
Euskarazko hitzik esaten
Malkoek ez baitute uzten.

3. Bere indarrez gureganaino
iritsi bada mendez mende,
darabilgunok ziur gaude
izango dela gero ere.
Bere erreinuan erabilpena
ezartzeko gai izan bazan,
segiko duen esperantzaz
dabilkigu mingaina dantzaz.